

KONTU EGIN

Marc Egea

Eusk: Ele txera

BEGOÑA: Ez haizela haserretuko esan didan. Bale. Ea nola kontatzen dinadan...

*(Pixka bat pentsatzen du) Ea... (Ideia bat otutzen zai) Bale. Kontu egin kalean nagonala taxi bat gelditu nahian eta ez zagonala modurik, eta berandu dun jada, eta dagoeneko ez zagon autobusik -ez zakinat nola demontre helduko naunan etxera-. Eta kontu egin, zainak mozteko zorian nagonanean, Eduardok autoarekin pasatu eta ikusi egiten naunala. Eta klaxona jotzen zidanala. Eta esaten zidan: "Ei, Begoña, igo, etxera eramaten haut". Kontuan hartu, kafe-makina hondatu zaidanala. Eta nire etxera iristen ari gaituanean, drama-planean azaltzen zionadala -drama dunalako-. Eta esaten zionat: "Susanak esan zidaan lehengoan horietako bat konpondu huela, ezta?". Eta igo eta begiratu bat egiteko konbentzitzen dinadala. Kontuan hartu, kafe-makina manipulatzten hasten dunala, eta, etzakinat zerezko konpartimentua irekitzen ari dunanean, helduta eduki behar ninan uraren ontzia iraultzen zaidanala, baina irrist egiten zidan - zortea ez zegonala bero, ura-. Eta kontutan hartu, noski, alkandora busti egiten zaionala eta nik kentzeko esaten zionadala, lehortzen zionadala -eta nik ere nirea kendu behar dinadala, busti egin zaidanalako ere-. Eta eskuoihal txiki bat pasatzen zionat bularretik lehortzeko. Eta nik neuretik ere pasatzen dinat, nik ere busti egin dinadalako. Kontutan hartu, ez zakinadala nola, bero handia egiten hasten dunala, eta nire bularretakoa hegan egiten dinala, eta bere galtzak hegan egiten dinat eta han bukatzen dinagu, sukaldeko lurrean...beno. *(Laguna asko haserretzen dagoela konturatzen da)*. Ez, ez, Ez hintzela haserretuko esan didan. Arraioa Susana, ez. **(SUSANA haserre dago)** Ez dinat nahi hi haserretzerik. Ea... Berrito hasiko naun. Jakin ezan Eduardo ez dunala hire senarra, kalean nagonala taxi bat gelditu nahian...*

OHARRAK: Nekez erabiliko luke norbaitek **BEGOÑAK** erabilitako bezain estrategia txarra, lagunaren senarrarekin afera bat izan duela lagun bati aitortzeko. Bakarrizketa hau gehiegikerien kategoriakoa da, eta, beraz, bide komikoa erakutsi nahi den entzunaldi edo bideoetan erabiltzea gomendatzen da.

ALDAKETAK: Baina demagun **BEGOÑAK** bere lagunaren ezkontza haustea nahi duela. Kasu horretan... estrategia dago, asmo txarra. Kontakizun komiko eta gehiegizkoak zinismo funts interesgarria izango du.

Ele txera
Hondatuak zabaltzen

